



ERDITZEKO LANEAN UR BEROTAN MURGILTZEA

Erditzeke lanean ur berotan murgiltzea baliabide erraza eta eraginkorra da, eta Osasun Sistema Nazionalaren “Erditze arruntaren arretari buruzko Praktika Klinikoaren Gida”k mina arintzeko baliabide horren erabilera gomendatzen du. Ondorioz, eta emakumeek erditzearen arretan gero eta esku-hartze txikiagoa eskatzen dutenez, ur berotan murgiltzeko aukera eskaini nahi diogu, mina arintzeko metodo gisa.

ZEIN ONURA DAKARTZA URETAN MURGILTZEAK?

- Murgitzeko gaitasuna hobetzen du eta erditzeak aurrera egitea errazten duten jarrera erosoagoak hartzeko aukera ematen du.
- Erlaxazioa errazten du eta mina murrizten du, baita analgesia epidurala erabiltzeko beharra ere.
- Oxitozina gehiago jariatzen da, eta horrek erditzearen bilakaera errazten du.
- Kontrol sentipen handiagoa ematen dio emakumeari.
- Amaren gogobetetze-maila handitzea dakar.

NOR MURGIL DAITEKE URETAN? Honako sintomak edo faktoreak dituena:

- 37-42 aste bitarteko fetu bakarreko haurdunaldi zefalikoak.
- Berezko erditzearen hasiera, dilatazio-fase aktiboan dagoena.
- Ur-poltsa apurtu eta likido amniotiko argia; poltsa hautsiz gero, apurketa < 24 orduetik beherakoa bada.
- (SGB) B motako estreptokokoa (+) bada, antibiotikoak hartu.
- Serologia negatiboak dituena.
- (RCTG) Erregistro kardiokografikoa edo urperatu aurreko bihotz-erregistro fetal normala duena.
- Infekziorik eza.
- Erabilera-baldintzak onartzea, baimen informatuaren bidez.
- Baldin eta baliabideak badaude: emagin bat emakume bakoitzeko.

NOR EZIN DAITEKE URETAN MURGILDU? Honako sintomak edo faktoreak dituena:

- Arrisku handiko edo kontrolatu gabeko haurdunaldia.
- 37 aste baino gutxiagoko haurdunaldia edo haurdunaldi anizkoitza (bikiak).
- Fetuaren aurkezpen ez-zefalikoak.
- Amaren Sukarra.
- Eragindako erditzea bada
- Mekonioz zikindutako likido amniotikoa.
- Baginako odoljario aktiboa.
- Obesitatea.
- Infekzio aktiboa, serologia positiboak edo ezezagunak.
- (RCTG) Erregistro kardiokografikoa edo fetuaren bihotz-erregistro patologikoa.
- Makrosomia edo korioamnionitisa izateko susmoa.
- Amaren mugikortasun-arazoak.
- Azken 3 orduetan opiazeoak erabili izana.
- 12 orduetik gorako dilatazio-aldia.
- Analgesia epidurala.

URETAN MURGILTZEKO GOMENDIOAK:

- Baimen informatua sinatzea.
- Behar adina langile izatea; emagin bat emakume bakoitzeko.
- Uraren tenperatura ezingo da 37,5°C-tik gorakoa izan, eta emakumeak tenperatura bere erosotasuna aintzat hartuta erregulatu ahal izango du.
- Likidoak edatea gomendatzen da: ura, zukuak, edari isotonikoak.
- Emakumeak sarritan egin beharko du txiza.
- Bainuontzia erabiltzen den bitartean, emaginak amari lagunduko dio eta erditzearen bilakaera kontrolatuko du. Horretarako, amaren konstanteak eta uraren tenperatura kontrolatuko ditu, eta umetxoaren bihotz-maiztasuna auskultatuko du, aldizkako edo etengabeko erregistroa eginez.
- Gomendagarria da bainuontziaren barruan eta egoteko aldiak txandakatzea gomendatzen da. Murgialdia 120 minututik gora luzatzen bada, uzkurdurak murriztu egin daitezke.

ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Konplikazioak ezohikoak edo bakanak badira ere, oso larriak izan daitezke haurrarentzat, eta uretan jaiotzean gerta daitezke; honako hauek izan daitezke: arnasteko zailtasuna eragiten duen ur-xurgatzea, zilbor-hestea haustea edo infekzioa.

Beraz, amaren eta jaioberriaren segurtasuna bermatze aldera, erditzen ari den emakumeak bainuontzitik irten beharko du kanporatze aldian edo dilatazio aldia amaituta.

JAKIN BEHARREKOA:

Gure Unitatean ez da aurreikusten haurra uretan jaiotzearen arreta, eta bainuontziaren erabileraren helburua mina arintzea da, bai eta erditze-prozesuan amaren gogobetetzea handitzea ere.

Arabako ESIko Erditze Unitateko langileok proiektu berri honetan murgilduta gaude eta ilusio handia egiten digu, erditzearen arretaren bidean beste aurrerapauso bat baita.

Uste dugu une berezi honek esperientzia paregabea eta gogobetegarria izan behar duela, bai amarentzat eta bere bikotekidearentzat, bai jaioberriarentzat.